

BERRI OROKORRAK

2022ko azaroaren 18an 11. zenbakia

IKASTOLEN TXOKOA

- **Ikastolak Herriari jaialdia azaroaren 25ean** egingo da Campos Elíseos antzokian (Bilbon), arratsaldeko 19:00etan. **Sutan musikala** arituko da. [Informazio gehiago...](#)
- **IRITZIA: eredu berri bat Euskal Hezkuntza Sistemarako**
Hona [hemen](#) Ikastolen Elkarteko lehendakariak eta zuzendari nagusiak Euskal Hezkuntza Sistemarako eredu berriaren inguruko idatzia.
- **Seaskako egutegia:** Urtero bezala SEASKA ikastolen federazioak bere egutegiak argitaratu ditu, Lapurdi, Baxe Nafarroa eta Xiberoko ikastolak laguntzeko. Prezioa 4 eurokoa da.



Ikastolako Ohiko Batzar Orokorra

2022ko Ohiko Batzar Orokorra, azaroaren 24an, **OSTEGUNEZ**, arratsaldeko **17:00etan** (lehen deialdian), **17:30ean** (bigarren deialdia) eta hala badagokio, **18:00etan** (hirugarren deialdian) **Ikastolako erdiko aretoan (Gernika Ibilbidea, 11)** egingo dela jakinarazten zaizue.

Batzarreko dokumentazioa bazkide diren familia eta ikastolako langileei emailuz helaraziko zaizue hurrengo egunetan.



Jangela-batzordea

Jangela-Batzordea martxan da eta bertan parte hartzera gonbidatu nahi zaitugu.

Batzordearen zeregina zerbitzuaren funtzionamenduaren, antolaketaren eta menuen jarraipena egitea da.

Hurrengo bilera, **abenduaren 13an** egingo da.

Bertan parte hartu nahi baduzu, **eman izena idazkaritzan.**



Eskia denontzat

Aurten ere, pandemia aurretik bezala eta neguko giroa aprobetxatuz, LH 5. mailatik gorako ikasleei zuzenduriko eski-aldia antolatu da. Bi irteera eskainiko dira: egun berean joan-etorrikoa eta asteburu osoa.



EGUN BEREAN JOAN-ETORRIA	ASTEBURU OSOA
<p>NOIZ: 2023ko urtarrilaren 21ean. NORA: Arette-ra. MODALITATEA: ESKI ALPINOA eta SNOWA. SALNEURRIA: 75 euro Prezioan honako zerbitzuak sartzen dira:</p> <ul style="list-style-type: none">- Autobusez bidaia.- Ekipamenduaren alokairua: botak, bastoiak, kaskoa, eski edo snow-taulak (aukeraren arabera).- Begiraleak ikasleak zaintzeko- 2 orduko eski edo snow ikastaroa euskaraz.- Eguneko eski-asegurua.- Eguneko forfaita	<p>NOIZ: 2023ko urtarrilaren 21etik 22ra. NORA: Candanchu-ra MODALITATEA: ESKI ALPINOA eta SNOWA. SALNEURRIA: 230 euro Prezioan honako zerbitzuak sartzen dira:</p> <ul style="list-style-type: none">- Autobusez bidaia.- Ekipamenduaren alokairua: botak, bastoiak, kaskoa, eski edo snow-taulak (aukeraren arabera).- Begiraleak ikasleak zaintzeko- 2 orduko eski edo snow ikastaroa euskaraz bi egunetan.- Bi eguneko eski-asegurua.- Bi eguneko forfaita.- Mantenu osoa Villanuan.

OHARRA: Eski-estazioan bertan gertaturiko istripuak aseguratutako daude, estaziotik kanpo gertaturikoak Gizarte Segurantzatik bideratuko dira. Bestalde, izen-ematea egiteak, komunak diren gastuei aurre egitea suposatzen du, nahiz eta ondoren atzera egin (autobusaren gastuak, monitoreenak, etab.).

Izena eman duten familiekin irteera baino astebete edo bi aste lehenago bilera bat egingo da dena zehazteko eta zalantzak argitzeko.

Bi irteerak egiteko gutxienerako taldea osatu beharko da.

ORDAINKETA: Izen-ematearekin batera aukeratutako irteeraren kostua bere **osotasunean ordaindu** beharko da Nafarroako Rural Kutxan, ES60 3008 0259 1420 8481 3324 (Kontzeptuan ikaslearen izen-abizenak) **azaroaren 25a baino lehen**. **Kontuz! Aurreko asteko albiste buletinean gaizki zegoen, hau dago ondo!** **Ordainketa egiaztagiria izena emateko galdetegian bertan atxiki behar da**, ez da idazkaritzan aurkeztu beharko.

IZEN-EMATEA: Azaroaren 11tik 25era bitarte egin ahal izango da, [galdetegi hau](#) betez. Edozein zalantza argitzeko, jarri harremanetan eskolakirola@udarregi.eus helbidean.

Euskaraldia 2022

Hemen da Euskaraldia!





Udarregi ikastola ere ARIGUNEA da.



Ariguneak zer dira?

Ariguneek, edo euskaraz aritzeko guneek, euskaraz hitz egiteko aukera bermatzen dute uneoro. Horietan, kideek ahobizi eta belarriprest modura jardungo dute Euskaraldiak iraungo duen bitartean.

<https://www.youtube.com/watch?v=mzmF-bgTUgo>

Zein izango da zure aurtengo erronka?

HAUR HEZKUNTZA

Gela-bilerak

Hau da Haur Eskolako guraso-bileren egutegia:



TALDEA	EGUNA	ORDUA	NON
0 -1	Azaroaren 22an	17:00	Seme/alabaren gelan
1-2 ASTOAK	Azaroaren 23an	17:30	Seme/alabaren gelan
1-2 BEHIAK	Azaroaren 23an	17:30	Seme/alabaren gelan
1-2 MANTANGORRIAK	Azaroaren 23an	17:30	Seme/alabaren gelan

Zorriak

HH 5 urteko ikasle batzuegan zorriak sumatu ditugu.

Norberak bere seme/alabarekin egoera horretan ohikoak diren higie-neurriak hartzea eskatu nahi dizuegu.

NEURRI HORIEK ERAGINKORRAGOAK IZAN DAITEZEN SAIATU DENOK ASTEBURU HONETAN EGITEN TRATAMENDUA



LEHEN HEZKUNTZA

LH 1eko familientzat oharra

Aste honetan LH 1eko ikasleei ikusmen-osasuna prebenitzeko froga batzuk pasatzera etorri da optometrista.

Azaroaren 22an, asteartea, arratsaldeko **17:00etan**, **bilera informatiboa** egingo da ikastolako **jangelan**. Bertan, ikasleei egin zaizkien frogen berri emango da txostena hobeto ulertu ahal izateko. Horrez gain, ikusmen-prebentzioko aholkuak eta kaltetuak ikusi diren ikusmen-trebetasunak hobetzeko zenbait ariketa proposatuko dira.



LH6ko familientzat oharra

Euskaraldiaren irekiera-ekitaldia: LH6. mailako ikasleei Euskaraldiaren irekiera ekitaldian parte hartzeko gonbitea egin diegula jakinarazi nahi dizuegu. **Azaroaren 18an**, Euskaraldia hasten da eta herrian prestatu den ekitaldian, besteak beste, kantua izango da. Hurrek, Iñorkiñak musika taldea eta Kantu Taldearekin batera abestuko dute gelan musika irakaslearekin prestatutakoa.

19:00etan hasiko da ekitaldia **Mikel Laboa plazan** (eguraldi txarra egingo balu, frontoian) eta bilgunea, 18:45ean egingo dugu. Ekitaldia bera ordu erdi ingurukoa izango da eta gero, Iñorkiñak musika taldea izango da oholtzan.

Anima ditzagun gure seme-alabak Euskaraldian parte-hartzera!



DBH

DBH 4. mailako ikasleen txertaketa

Osakidetzako txertaketa programaren barruan, DBH 4ko ikasleei **Difteria-Tetanosaren** aurkako txertoa jarriko zaie. Horretarako, **baimen-orria** banatu zaie. Orri hori **azaroaren 23rako sinatuta** ikastolara ekarri beharko dute eta **tutoreari eman**.



Osakidetza